

Lan-poltsa
Goi Mailako Teknikarien Kidegoa

Arkitektura aukera

1. ariketa, zati teorikoa

A eredua

2015/02/28

GLOSARIOA

CASTELLANO		EUSKARA	
ACRÓNIMO	SIGNIFICADO	AKRONIMOA	ESANAHIA
PTS	Plan Territorial Sectorial	LPS	Lurralde-Plan Sektoriala
PTP	Plan Territorial Parcial	LPP	Lurralde-Plan Partziala
DOT	Directrices de Ordenación Territorial	DOT	Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan
CTE	Código Técnico de la Edificación	EKT	Eraikingintzaren Kode Teknikoa
DB	Documento Básico	OD	Oinarrizko Dokumentua
DB-SI	Documento Básico-Seguridad en caso de Incendio	SS-OD	Segurtasuna, sua gertatuz gero – Oinarrizko Dokumentua
DB-HR	Documento Básico-Protección frente al ruido	DB-HR	Zarataren kontrako babesa – Oinarrizko Dokumentua
DB-HE	Documento Básico-Ahorro de Energía	DB-HE	Energia aurreztea – Oinarrizko Dokumentua
DB-SUA	Documento Básico-Seguridad de Utilización y Accesibilidad	DB-SUA	Erabiltzeko segurtasuna eta irisgarritasuna – Oinarrizko Dokumentua
ACS	Agua Caliente Sanitaria	EUB	Etxeko Ur Beroa
RITE	Reglamento de Instalaciones Técnicas en los Edificios	RITE	Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua

1 HEMEN DAUDE EZARRITA UDAL PLANEAMENDU BATEK HAR DEZAKEEN GEHIENEZKO BIZITEGI-EDUKIERA KALKULATZEKO IRIZPIDEAK:

- 1a) Udalerria zer eremutan kokatzen den, eremu horretako lurralde-plan partzalean (lurraldearen zatiko plan), edo, halakorik ezean, EAEko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan.
- 1b) Etxebizitzako Lurralde Plan Sektorialean (lurraldearen arloko plan), edo, halakorik ezean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean.
- 1c) Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/1999 Legean.
- 1d) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean.

2 KONTRAESANIK IZANEZ GERO LURRALDE-PLAN SEKTORIAL BATEK (LURRALDEAREN ARLOKO PLAN ERE ESATEN ZAIO) XEDATU DUENAREN ETA LURRALDE-PLAN PARTZIAL BATEK (LURRALDEAREN ZATIKO PLAN ERE ESATEN ZAIO) XEDATU DUENAREN ARTEAN:

- 2a) Lurralde-plan sektorialak ezarritakoek izango dute lehentasuna.
- 2b) Lurralde-plan partzialak ezarritakoek izango dute lehentasuna.
- 2c) Plan bereziaren figuraren bitartez ebatzi beharko dira bat ez etortzeak.
- 2d) Lurralde-plangintza bateragarri egiteko planaren figuraren bitartez ebatzi beharko dira bat ez etortzeak.

3 4/1990 LEGEAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDUARI BURUZKOAK, HAU DIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAZ:

- 3a) Organo eskuduna dela behin betiko onarpena emateko 7.000 biztanletik beherako udalerrien plangintzari.
- 3b) Organo eskuduna dela behin betiko onarpena emateko 10.000 biztanletik beherako udalerrien plangintzari.
- 3c) Organo eskuduna dela behin betiko onarpena emateko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren alorreko legeriari.
- 3d) EAEko kontsulta-organoa dela lurraldearen antolamenduaren alorrean.

4 HONENA DA LURRALDE-PLAN PARTZIALAK FORMULATZEKO EKIMENA:

- 4a) Eusko Jaurlaritzarena soilik.
- 4b) Foru-diputazioena soilik.
- 4c) Eusko Jaurlaritzarena eta foru-diputazioena era berean.
- 4d) Eusko Jaurlaritzarena, lurralde historikoen hiriburuetakoko bati eragiten diotenei dagokienez; foru-diputazioena, gainerakoei dagokienez.

5 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ARABERA (LURRALDE PLAN SEKTORIALA-LPS), BIRSAILKAPEN BATEN ONDORIOZ HIRI-LUZORUA EDO LURZORU URBANIZAGARRIA ATERAZ GERO, ETA LANDA-ESPARRUKO ERTZ-TARTE BATI ERAGIN:

- 5a) "Landa-esparruko ertz" kategoriari eutsiko diote ertz-tarte horiek.
- 5b) "Esparru garatuetako ertz" kategoria esleituko zaie ertz-tarte horiei.
- 5c) "Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten ertz" kategoria esleituko zaie ertz-tarte horiei.
- 5d) "Birsailkapen-prozesuek eragindako ertz" kategoria esleituko zaie ertz-tarte horiei.

6 EAEKO IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE-PLAN SEKTORIALAK GUTXIENEO ATZERAPEN BATZUK (*RETIROS MÍNIMOS*) EZARRI DITU ERAIKUNTZARAKO ETA URBANIZAZIORAKO. HORRETARAKO, KONTUAN HARTU DITU IBILGUAREN ARRO IXURLEAREN EDO IXURTZE-ARROAREN AZALERA ETA:

- 6a) Eragindako ertzen lurzoruak zer sailkapen duen udal planeamenduaren arabera.
- 6b) Eragindako ertzen lurzoruak zer kalifikazio duen udal planeamenduaren arabera.
- 6c) Udal planeamenduaren indarraldirako aurreikusi den gehienezko ur-goraldia.
- 6d) Ertzak zer zonatan sartzen diren hirigintza-osagaiaren arabera.

7 EAEKO IBAIERTZAK ETA ERREKAERTZAK ANTOLATZEKO LURRALDE-PLAN SEKTORIALAK HAU EZARRI DU BIDERATZE-LAN ESTALIEI DAGOKIENEZ (*ENCAUZAMIENTOS CUBIERTOS*):

- 7a) Isurtze-arroaren azalera 10 km²-tik beherakoa duten ibai-tarteetan baino ez dira onartuko bideratze-lan estaliak.
- 7b) "Esparru garatuetakoko ertz" gisa kalifikatutako ertzetan baino ez dira onartuko bideratze-lan estaliak.
- 7c) 50 metro baino gutxiagoko luzera duten eta sendoturiko hiri-bilbean (*trama urbana consolidada*) txertatuta dauden zatietan baino ez dira onartuko bideratze-lan estaliak.
- 7d) Irizpide orokor gisa, ez da bideratze-lan estalirik egingo

8 JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LURRALDE PLAN SEKTORIALA-LPS) UDALERRI BAKOITZEKO MERKATARITZA-EKIPAMENDU BERRIEN GEHIENEO AZALERA ARAUTZEN DU, ETA HAU HARTZEN DU KONTUAN:

- 8a) Udalerriari LPSren arabera dagokion kategoria.
- 8b) Ekipamendu berria kokatu nahi den lurzoruaren sailkapena.
- 8c) Udalerriko biztanleria eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (*DOT*) ezarritako kalkulu-metodoa.
- 8d) Udalerrian jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoruaren azalera.

9 JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA SORTZEKO ETA SALTOKI HANDIAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK (LURRALDE PLAN SEKTORIALA-LPS) EZARRITAKO ZEHAZTAPENEN ARTEAN DAGO:

- 9a) Udal bakoitzak, bere kategoriaren arabera, industria-erabilerarako bideratu beharko duen lurzoruaren gutxieneko portzentajea.
- 9b) Udal bakoitzean jarduera ekonomikoetara bideratu behar diren eremuen definizioa.
- 9c) Merkataritza-ekipamenduetarako (saltokietarako) lurzoruaren erreserben definizioak, udal planeamenduak aurreikusi behar baititu.
- 9d) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren kuantifikazioa.

- 10 EUSKAL KULTUR ONDAREARI BURUZKO 7/1990 LEGEAREN ARABERA, HAUEI DAGOKIE KULTURA-ONDASUNAK BABESTU BEHARRA:**
- 10a) Eusko Jaurlaritzari, kultura-ondasun kalifikatuen kasuan, eta Foru Diputazioari, kultura-ondasun inbentariatuen kasuan.
- 10b) Foru Diputazioari, kultura-ondasun kalifikatuen kasuan, eta jabeei, kultura-ondasun inbentariatuen kasuan.
- 10c) Ondasunen jabeei, monumentu-multzo baten barruan dauden ondasunetan salbu.
- 10d) Ondasunen jabeei.
- 11 INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO 3/1998 LEGEAREN ARABERA, ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOKO BABES-ZORTASUNEKO ZONAKO ERABILEREK ETA JARDUERAK ADMINISTRAZIOAREN BAIMENA BEHAR DUTE. ZER ORGANORI DAGOKIO BAIMEN HORI EMATEA?**
- 11a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari
- 11b) EAEko ingurumen-organoari, erabilera eta jarduera horiek iraunkorrak ez direnean salbu.
- 11c) EAEko ingurumen-organoari
- 11d) Dagokion lurralde historikoko foru-diputazioaren ingurumen-organoari.
- 12 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO 3/1998 LEGEAK HAUEK SARTZEN DITU INGURUMENAREN ALDETIK SENTIKORRAK DIREN ZONEN BARRUAN:**
- 12a) Lurzoru urbanizaezin guztia.
- 12b) Natura aldetik interes handikoak diren zona edo enklabeak, betiere katalogatuta baldin badaude.
- 12c) Baso-, ingurumen- edo paisaia-interesekotzat kalifikaturiko lurzoru urbanizaezina.
- 12d) Udal planeamenduak "ingurumenaren aldetik sentikor"tzat kalifikatzen dituen zonak.
- 13 2/2006 LEGEAK PLAN BEREZIEI BURUZ EZARRI DUENEZ:**
- 13a) Bakarrik ezarri ahal izango dute hiri-lurzoruaren antolamendua edo ordenazioa lurzoru horrek ez baldin badu plan orokorrean definitutako antolamendu xehaturik.
- 13b) Hiri-lurzorutzat sailkatutako lurzoruaren antolamendua edo ordenazioa baino ez dute ezarriko.
- 13c) Hiri-lurzoru finkatugabetzat edo lurzoru ez urbanizagarritzat sailkatutako lurzoruaren antolamendua edo ordenazioa baino ez dute ezarriko.
- 13d) Lurzoru-mota bat edo gehiago hartzen duen eremu baten antolamendua edo ordenazioa ezar dezakete.
- 14 XEHETASUN-AZTERKETEK, SESTRAK ETA LERROKADURAK ADIERAZTEAZ GAIN, BESTEAK BESTE ONDORENGO ZEHAZTASUNAK DEFINITU AHAL IZANGO DITUZTE:**
- 14a) Antolatutako eremuaren bolumenen ordenazioa eta hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntza.
- 14b) Bolumenen ordenazioa eta lurzoruaren kalifikazioaren doitzea bide edo zuzkidura publiko berriak jartzeko.
- 14c) Ordenazioa edo antolamendua doitzea aurreikusitako bide edo zuzkidura publikoak gutxitzeko aukera emateko.
- 14d) Ordenazioaren edo antolamenduaren xedeko eremuaren mugak eta erabilera-araubide orokorra doitzea.

- 15 PLAN OROKORREN EGITURAZKO ANTOLAMENDUAK ESPAZIO LIBREETARAKO ESKATZEN DUEN ZUZKIDURA EDO DOTAZIOA KALKULATZEKO, KORRELAZIO HAU EZARRI DU 2/2006 LEGEAK:**
- 15a) Hiru biztanle etxebizitzarako azalera eraikiko 100 m²-ko.
 - 15b) Etxebizitza libreko hiruzi biztanle, eta lau biztanle etxebizitza babestuko.
 - 15c) Espazio libreetarako lurzoruko metro karratu bat bost biztanleko.
 - 15d) Biztanle bat etxebizitzarako azalera eraikiko 25 m²-ko.
- 16 LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAK HAUEK DEFINITZEN DITU EGITURA-ANTOLAMENDU PLANTZAT:**
- 16a) Hiri-antolamendurako plan orokorra, Plangintza orokorreko bateragarritze-plana eta Sektorekatze-plana.
 - 16b) Hiri-antolamendurako plan orokorra, Udal plangintzako arau subsidiarioak, a) eta b) motakoak, eta Hiri-lurzorua mugatzeko proiektua.
 - 16c) Hiri-antolamendurako plan orokorra eta Udal plangintzako arau subsidiarioak.
 - 16d) Lurralde-plan partziala eta Lurralde-plan sektoriala
- 17 LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAREN ARABERA, HIRI-LURZORU GISA SAILKATUKO DIRA LURSAIL HAUEK, BESTEAK BESTE:**
- 17a) Garapen-plangintza behin betiko onartuta dutenak.
 - 17b) Antolamendua edo ordenazioa finkatuta dutenak, eraikuntzak horretarako eremu baliagarrien gutxienez bi herenak okupatzeagatik.
 - 17c) Lurzoru urbanizaezinenaren sailkapena exijitzen duten balio naturalak ez dituztenak eta landa-gune baten bilbean sartzen direnak.
 - 17d) Indarreko lurralde-plangintzak hiri-lurzoruaren sailkapena ezarri dienak.
- 18 2/2006 LEGEAREN ARABERA, HAUEK DIRA EGIKARITZE EDO EXEKUZIO PRIBATUKO ERREGIMENEN JARDUKETA-SISTEMAK:**
- 18a) Zuzenean egikaritu edo exekutatzeko sistema eta gerora egikaritu edo exekutatzekoa.
 - 18b) Eragile urbanizatzailearen sistema eta hitzarmen-sistema.
 - 18c) Egikaritze-unitatearen sistema eta jarduketa isolatuaren sistema.
 - 18d) Zuzkidura-jarduketaren sistema eta desjabetzearen sistema.
- 19 2/2006 LEGEAREN ARABERA, LURZORU URBANIZAEZINEAN, KASU HAUETAN BAKARRIK BAIMENDU DAITEKE BASERRIAK BERRERAIKITZEA:**
- 19a) Baserriak katalogatuta edo inbentariatuta daudenean.
 - 19b) Lurralde historikoko Nekazaritza Sailak txostena eman ondoren.
 - 19c) Baserrizat jotzeko modua ematen duen egitura eraikia gordetzen dutenean.
 - 19d) Nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenari lotuta daudela justifikatzen denean.
- 20 2/2006 LEGEAREN ARABERA, PLAN OROKORRAK HIRI-LURZORUARI BURUZ JASOTAKO ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETARI DAGOKIONEZ:**
- 20a) Plan berezi baten bitartez egin daiteke.
 - 20b) Xehetasun-azterketa baten bidez egin daiteke.
 - 20c) Ez da plangintza-tresnarik idaztea eskatuko.
 - 20d) Plangintza orokorraren aldaketa izapidetu beharko da.

21 2/2006 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, LURRALDE-EREMU JAKIN BATEKO BATEZ BESTEKO ERAIKIGARRITASUNA ZATIDURA BAT IZANGO DA:

- 21a) Zatikizuna eremuko eraikigarritasun gordina izango da, eta zatitzailea, berriz, eremu horretako azalera osoa, barne hartuta lehendik dauden sistema orokor finkatuak.
- 21b) Zatikizuna eremuko eraikigarritasun fisikoa izango da, eta zatitzailea, berriz, eremu horretako azalera, kanpoan utzita lehendik dauden sistema orokor finkatuak.
- 21c) Zatikizuna eremuko eraikigarritasun haztatua edo ponderatua izango da, eta zatitzailea, berriz, eremu horretako azalera, kanpoan utzita lehendik dauden sistema orokor finkatuak.
- 21d) Zatikizuna eremuko hirigintza-eraikigarritasuna izango da, eta zatitzailea, berriz, eremu horretako azalera, kanpoan utzita lehendik dauden sistema orokor finkatuak.

22 2/2006 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, HAUEK OSATZEN DUTE HIRIGINTZA-JARDUKETA BATEN ESPAZIOA:

- 22a) Egikaritze-unitateek.
- 22b) Unitate integratuek.
- 22c) Egikaritze-unitate isolatuek.
- 22d) Hirigintza- edo urbanizazio-unitateek.

23 2/2006 LEGEAREN ARABERA, HIRIGINTZAKO LIZENTZIA BEHAR DA ETXE PREFABRIKATUAK JARTZEKO?

- 23a) Ez.
- 23b) Bai.
- 23c) Bai, behin-behinekoak direnean salbu.
- 23d) Bai, nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapen bati lotuta daudenean salbu.

24 2/2006 LEGEAREN ARABERA, HIRIGINTZAKO LIZENTZIA BEHAR DA ERAIKUNTZAK ERAITSI EDO BOTATZEKO?

- 24a) Ez.
- 24b) Bai.
- 24c) Bai; salbuespen izango dira erortzeko zorian dauden eraikintzat hartutakoak.
- 24d) Bai, salbu eta eraispenak titulartasun publikoko espazio, eremu edo ondareei eragiten ez badie.

25 EUSKAL KULTUR ONDAREARI BURUZKO 7/1990 LEGEAREN ARABERA, LEGE HORREN ONDORIOETARAKO ERAKUNDE ESKUMENDUN DIRA:

- 25a) Eusko Jaurlaritza eta foru-diputazioak bakarrik
- 25b) Eusko Jaurlaritza, foru-diputazioak eta 7.000tik gora biztanle dituzten udalak
- 25c) Eusko Jaurlaritza, foru-diputazioak eta 3.000tik gora biztanle dituzten udalak.
- 25d) Eusko Jaurlaritza, foru-diputazioak eta udalak

26 LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAREN ARABERA, PLANGINTZA EDO PLANEAMENDU BATEAN MAILA BEREKO ZEHAZTAPENEN ARTEKO KONTRAESANIK GERTATUZ GERO, HONELA KONPONDUKO DIRA:

- 26a) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen irizpidearen arabera.
- 26b) Zehaztapen deskriptiboari emango zaie lehentasuna.
- 26c) Idatzizko zehaztapenek izango dute lehentasuna zehaztapen grafikoen aurrean.
- 26d) Zehaztapen grafikoen izango dute lehentasuna idatzizko zehaztapenen aurrean.

27 EKT-K (ERAIKINGINTZARAKO KODE TEKNIKOAK) EZARRI DUENEZ:

- 27a) Oinarrizko baldintzak erregelamendu bidez ezarritako moduan bete behar dira eraikinen eta eraikinetako instalazioen proiektuan, eraikuntzan, mantentze-lanetan, kontserbazioan.
- 27b) Oinarrizko baldintzak erregelamendu bidez ezarritako moduan bete behar dira eraikinen eta eraikinetako instalazioen proiektuan, eraikuntzan, mantentze-lanetan, kontserbazioan eta erabileran, bai eta lehendik dauden eraikinetan egiten diren esku-hartzeetan ere.
- 27c) Oinarrizko baldintzak erregelamendu bidez ezarritako moduan bete behar dira eraikinen eta eraikinetako instalazioen proiektuan, eraikuntzan, mantentze-lanetan, kontserbazioan eta erabileran, bai eta lehendik dauden eraikinetan egiten diren esku-hartzeetan ere, arrazoizko doikuntzak badira, beti ere.
- 27d) Aurreko aukeretatik bat ere ez

28 HAUEK HARTZEN DITUZTE OINARRIZKO DOKUMENTUEK (OD):

- 28a) Oinarrizko betekizunen karakterizazioa eta kualifikazioa
- 28b) Oinarrizko eskakizunen karakterizazioa eta kuantifikazioa.
- 28c) Oinarrizko eskakizunen karakterizazioa eta kualifikazioa.
- 28d) Aurreko aukeretatik bat ere ez

29 ERAIKIN BATEK EKT-N ZEHAZTEN DIREN OINARRIZKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITUELA JUSTIFIKATZEKO, OBRAREN PROIEKTUGILEAK EDO ZUZENDARIAK, BEREN ARDURAPEAN, IRTENBIDE ALTERNATIBOAK ERABAKI DITZAKETE, BALDIN ETA JUSTIFIKATZEN BADUTE, DOKUMENTUEN BIDEZ BETIERE, PROIEKTUKO ERAIKINAK EKT-REN OINARRIZKO ESKAKIZUNAK BETETZEN DITUELA, ERAIKINAREN PRESTAZIOAK, GUTXIENEZ, OD-AK APLIKATUZ LORTUKO LIRATEKEENEN BALIOKIDEAK IZATEAGATIK, BETI ERE:

- 29a) Administrazio eskumendunaren adostasuna jaso ondoren
- 29b) Sustatzailearen adostasuna jaso ondoren
- 29c) Kontrol Teknikoko Organismoen adostasuna jaso ondoren
- 29d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

30 ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK EGITEARI DAGOKIONEZ, ERAIKUNTZA-PROIEKTU ORO ONDORENGO URRATSETAN EGIN EDO GARATUKO DA GUTXIENEZ:

- 30a) Fase hauetan: alde aurreko azterlanak, aurreproiektua, oinarrizko proiektua eta lan-proiektua (exekuzio-proiektua).
- 30b) Fase hauetan: aurreproiektua, oinarrizko proiektua eta lan-proiektua (exekuzio-proiektua)
- 30c) Oinarrizko proiektuaren fasea eta lan-proiektuaren fasea (exekuzio-proiektua).
- 30d) Oinarrizko proiektuaren fasea, lan-proiektuaren fasea (exekuzio-proiektua) eta obra-bukaerako proiektuaren fasea.

31 ZER BALDINTZA EZ ZAIO ESKATZEN ESKAILERA BABESTU BATI?

- 31a) Erabiltzaileen joan-etorrirako soilik da, eta eraikineko gainerako esparruetatik banatua dago, solairu bakoitzetiko sarbide bakoitzean bereizte-atarte desberdin baten bidez, eta EI 120 motako elementu banatzaileen bidez.
- 31b) Lokalak, gehienez, bi sarbide izango ditu solairu bakoitzean, eta zirkulazio komuneko eta berezko okupaziorik gabeko gunetatik sartuko da bertara, EI2 60-C5 motako ateetatik. Sarbide horiez gain, *eskailera babestuaren* esparrura komunak ireki ditzakete, eta, halaber, igogailuak, baldin eta azken horien ateak, solairu guztietan, aztertutako *eskailera babestuaren* esparrura edo *bereizte-atarte* batera irekitzen badira.
- 31c) *Eraikinaren irteerako* solairuan, eskaileraren esparruko irteerako atetik, edo hori izan ezean handik irteteko gunetik, *eraikinaren irteeraren* ibilbidearen luzera ezin da 15 m baino gehiago izan, salbu ibilbide hori *arrisku txikiko sektore* batetik egiten bada. Kasu horretan, sektore horretako edozein *ebakuazio-jatorri*entzat oro har ezartzen dena izango da muga.
- 31d) Kearen kontrako babesa du esparruak.

32 ERAIKINA EBAKUATZEKO GARAIAN ERABILTZAILE GEHIENEK LAGUNTZA BEHAR DUTEN ERAIKINEI, ESTABLEZIMENDUEI EDO HAIEN GUNEEI (EGOITZA GERIATRIKOAK EDO MINUSBALIATUEN EGOITZAK, HEZKUNTZA BEREZIKO IKASTETXEAK ETA ABAR) BERARIAZKO BALDINTZA HAUEK APLIKATU BEHAR ZAIZKIE:

- 32a) Osasun-erabilera edo izaera anbulatorioko asistentzia-erabilera duten establezimendu edo guneei dagozkienak
- 32b) Muga psikikoak dituzten pertsonak hartzeko establezimenduei dagozkienak.
- 32c) Ostalaritzako bizitegi-erabilera duten establezimenduei dagozkienak.
- 32d) Ospitale-erabilera duten establezimenduei dagozkienak.

33 CE MARKARIK GABEKO PRODUKTUAK OBRAKO LANETARA ERAMATEN DIRENEAN, PRODUKTU HORIEN SAIKUNTZA- ETA SAILKAPEN-EGIAZTAPENEK, SUAREKIKO ERREAKZIOARI BURUZKOAK DIRENEAN, ONDORENGO ANTZINATASUNA IZANGO DUTE GEHIENEZ:

- 33a) 15 urte
- 33b) 10 urte
- 33c) 5 urte
- 33d) Saiakuntza- eta sailkapen-egiaztapenak ez dira iraugitzen.

34 ERAIKIN ITXIETAN, IGOGAILUEK, SARBIDE BAKOITZEAN, E 30 ATEAK EDO EI2 30-C5 ATEA DUEN BEREIZTE-ATARTE BAT IZANGO DUTE. ZEIN ERABILERATAN IZAN BEHARKO DA BETI AIPATUTAKO ATARTEA?

- 34a) Administrazio-erabileran.
- 34b) Ospitale-erabileran.
- 34c) Ostalaritza-erabileran.
- 34d) Aparkaleku-erabileran.

- 35 ADMINISTRAZIO-ERABILERAN, SUTE-SEKTORE OROREN AZALERA ERAIKIAK EZIN DU IZAN:**
- 35a) 2.500 m² baino handiagoa
 35b) 4.000 m² baino handiagoa
 35c) 8.000 m² baino handiagoa, baldin eta sektorearen azalera sua itzaltzeko instalazio automatiko batez babesturik badago.
 35d) 10.000 m² baino handiagoa, baldin eta sektorearen azalera sua itzaltzeko instalazio automatiko batez babesturik badago.
- 36 SUTE-BANAKETAKO ELEMENTUEK NEURRI BEREKOA IZAN BEHAR DUTE SUAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA INSTALAZIOEN ELEMENTUEK ZEHARKATZEN DITUZTEN PUNTUETAN, HOTS, KABLE, HODI, EROANBIDE, AIREZTATZE-HODI ETA ABARREK ZEHARKATZEN DITUZTEN PUNTUETAN, SALBU X BAINO GUTXIAGOKO PASATZE-SEKZIOA DUTEN SARPENAK DIRENEAN.**
- 36a) X = 25 cm².
 36b) X = 50 cm².
 36c) X = 75 cm².
 36d) X = 100 cm².
- 37 ESTALKIAN BARRENA SUTEA KANPOTIK HEDATZEKO ARRISKUA MUGATZEKO, IZAN ELKARREN ONDOAN DAUDEN BI ERAIKINEN ARTEAN, IZAN ERAIKIN BEREAN, REI 60 SUAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA IZANGO DU ESTALKIAK GUTXIENEZ 0,50 M ZABALEKO TARTEAN ERAIKIN MUGAKIDETIK NEURTUTA, ETA, OROBAT, SUTE-SEKTORE BATEN EDO ARRISKU BEREZI HANDIKO LOKAL BATEN ELEMENTU BANATZAILE OROREN ESTALKIAREKIKO ELKARGUNEAREN GAINEAN, 1,00 M ZABALEKO TARTEA. HORREN ORDEZ, BESTE BAT APLIKA DAITEKE: MEHELINA EDO ELEMENTU BANATZAILEA GUTXIENEZ X LUZATZEA ESTALKIAREN AKABERAREN GAINETIK:**
- 37a) X = 1,20 m.
 37b) X = 0,90 m.
 37c) X = 0,60 m.
 37d) X = 0,30 m.
- 38 ERABILERA MUGATUKO ETA KANPOALDEKO GUNEETAN IZAN EZIK, IRRISTADEN EDO ESTROPEZUEN ONDORIOZ ERORTZEKO ARRISKUA MUGATZEKO HELBURUAREKIN, BALDINTZA HAUEK BETE BEHAR DITU ZORUAK: DESNIBELA, 5 CM BAINO HANDIAGOA EZ DENEAN, X GAINDITUKO EZ DUEN MALDA BATEKIN KONPONDUKO DA:**
- 38a) X = % 10.
 38b) X = % 12.
 38c) X = % 25.
 38d) X = % 30.
- 39 BABES-HESIEK GUTXIENEZ 0,90 M-KO GARAIERA IZANGO DUTE BABESTEN DUTEN KOTA-DESBERDINTASUNA X BAINO GEHIAGOKOA EZ DENEAN:**
- 39a) X = 12 m.
 39b) X = 9 m.
 39c) X = 6 m.
 39d) X = 3 m.

- 40 IGOGAILUA DUTEN ERAIKINETAN, ERABILERA OROKORREKO ESKAILEREN MAILETAN, ATAL ZUZENETAN, MAILAGAINAK 28 CM IZANGO DITU GUTXIENEZ. ATAL ZUZENETAN, KONTRAMAILAK 13 CM IZANGO DITU GUTXIENEZ, ETA GEHIENEZ:**
- 40a) 18,5 cm.
40b) 17,5 cm.
40c) 20 cm.
40d) 22 cm.
- 41 ERABILERA MUGATUKO GUNEETAN IZAN EZIK, OKUPAZIORIK GABEKO ESPARRUETAKOAK EZ DIREN ATEAK (IKUS DEFINIZIOA SS –SI– OINARRIZKO DOKUMENTUKO SS A ERANSKINEAN – SI A–), 2,50 M BAINO GUTXIAGOKO ZABALERAKO KORRIDOREEN ALBOETAN, HONELA JARRI BEHAR DIRA: ATE-ORRIAK, IREKITZEAN:**
- 41a) Ezin dira sartu ebakuazio-baldintzen arabera zehaztutako zabalera, SS oinarrizko dokumentuaren SS 3 ataleko 4. zenbakari jarraikiz.
41b) Korridoreraino ez sartzeko moduan.
41c) Gutxienez 1 m-ko pasabide librea uzteko moduan.
41d) Gutxienez 1,5 m-ko pasabide librea uzteko moduan.
- 42 ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN, MUGIKORTASUN GUTXITUA DUTEN PERTSONENTZAKO ATERPE-GUNEA EDUKI BEHAR DIRA; HAIN ZUZEN ERE, KOPURU HAU:**
- 42a) Solairu bakoitzeko 1,20 x 0,80 m-ko leku bat 100 erabiltzaile bakoitzeko edo frakzio bakoitzeko.
42b) Solairu bakoitzeko 0,80 x 0,60 m-ko leku bat 33 erabiltzaile bakoitzeko edo frakzio bakoitzeko.
42c) Solairu bakoitzeko leku bat 33 erabiltzaile bakoitzeko edo frakzio bakoitzeko, SS3-2ren arabera (S/3-2), ebakuazio-garaiera 14 m baino handiagoa bada.
42d) Solairu bakoitzeko leku bat 33 erabiltzaile bakoitzeko edo frakzio bakoitzeko, SS3-2ren arabera (S/3-2), ebakuazio-garaiera 28 m baino handiagoa bada.
- 43 EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ARABERA (ZARATAREN KONTRAKO BABESA), KANPOALDETIK DATORREN ZARATAREN KONTRAKO BABESA DUTEN ESPARRUETAN, AIREKO ZARATAREKIKO ISOLAMENDU AKUSTIKOAREN MUGA-BALIOAK, D 2M,NT, ATR EZ DIRA TXIKIAGOAK IZANGO:**
- 43a) Aipatu dokumentuan adierazitako balioak baino. Balio horiek eraikinaren erabileran oinarrituz lortzen dira.
43b) Aipatu dokumentuan adierazitako balioak baino. Balio horiek eraikinaren erabileran eta eraikina dagoen eremuko eguneko zarata-indizearen balioetan, Ld, oinarrituz lortzen dira.
43c) 30 dBA baino.
43d) 33 dBA baino.

- 44 EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUA (ZARATAREN KONTRAKO BABESA) OINARRITZAT HARTUTA, BIZITZEKO ERABILERA PRIBATUKO ERAIKINEN BARRUAN, BIZITZEKO ESPARRUETAN, ERABILERA-UNITATE BEREKO ESPARRUETAN SORTUTAKO ZARATAREN KONTRAKO BABESARI DAGOKIOEZ, AIREKO ZARATAREKIKO ISOLAMENDU AKUSTIKOAREN MUGA-BALIOAK KONTUAN HARTUTA TRENKADA-MULTZOAREN SOINU-MURRIZKETAREN INDIZE OROKORRA, RA, EZ DA TXIKIAGO IZANGO:**
- 44a) 33 dBA baino.
44b) 35 dBA baino.
44c) 43 dBA baino.
44d) Ez dago exijentziarik kasu honetan.
- 45 ERAIKIN BATEN ERAIKUNTZA-ELEMENTUEN DISEINU ETA NEURRIETARAKO AUKERA SINPLIFIKATUAK, EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUAN (ZARATAREN KONTRAKO BABESA) EZARTZEN BAITA:**
- 45a) Honetan oinarritutako kalkulu-prozedura bat jasotzen du: egituren transmisio akustikoa zehazteko aukera sinplifikatuaren eredian —UNE EN 12354 arauaren 1., 2. eta 3. parteetan zehazten da—.
- 45b) Aireko zaratarekiko eta inpaktuen zaratarekiko isolamendu-eskakizunak betetzeko isolamendu-irtenbideak ematen ditu.
- 45c) Aukera ematen du aireko zaratarekiko isolamendu akustikoaren itxarondako balioa, $D_{nT, A}$ zehazteko, esparru babestu bati eta beste esparru mugakide bati dagokienez, esparruak osatzen dituzten eraikuntza-elementuetako bakoitzaren datu hauek abiapuntutzat hartuta: azalera-unitate bakoitzeko masak eta Ra.
- 45d) Ez dio baldintza gehigarririk ezartzen trenkada-multzoari.
- 46 EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUAK (ZARATAREN KONTRAKO BABESA) PUNTU EDO BALDINTZA BATZUK EZARRI DITU INSTALAZIOEN ZARATA ETA BIBRAZIOEN ALORREKO ESKAKIZUNEN KARAKTERIZAZIOARI ETA KUANTIFIKAZIOARI DAGOKIENEZ. ADIERAZI ONDORENGOETATIK ZEIN EZ DEN ZUZENA:**
- 46a) Instalazioek eraikineko esparru babestuetara edo bizitzeko esparruetara haiek eta eraikuntza-elementuak lotzen dituzten ainguren eta kontaktu-puntuaren bitartez transmititutako zarata- eta bibrazio-mailak mugatu egingo dira, halako moldez non eraikineko gainerako zarata-iturriei dagozkien mailak ez baitira modu hautemangarrian handiagotuko.
- 46b) Gehienezko potentzia akustikoaren mailak, instalazio-esparruetako zarata geldikorra sortzen duten ekipoen kasuan (hala nola erregailu, galdara, bulkatzeko ponpa, igogailuen makineria, konpresore, ekipo elektrogeno, erauzgailu eta abar), eta, orobat, aire girotuko instalazioetako sareten eta amaierako barreiagailuen kasuan, esparru mugakideetan sar daitekeen zarata-maila (Zarata buruzko 37/2003 Legearen arau-garapenean adierazia) ez gainditzeko modukoa izan behar du.
- 46c) Estalkietan eta kanpoaldeko gune eratxikietan dauden ekipoen gehienezko potentzia akustikoa halako mailakoa izango da non ez diren gaindituko ekipoen ingurunean eta bizitzeko esparruetan eta esparru babestuetan kalitate akustikoari dagokionez izan beharreko helburuak.
- 46d) Instalazio-esparru batekin bertikalki edo horizontalki mugakide den edo harekin ertz horizontal komuna duen bizitzeko esparru batean, inpaktuen zarataren presio-maila orokorra ez da handiagoa izango 65 dB baino.

47 HE (ENERGIA AURREZTEA) OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ARABERA:

- 47a) Eraikin berrietan nahikoa izango da energia-eskaria mugatuta izatea.
- 47b) Eraikin berrietan nahikoa izango da energia-kontsumoa mugatuta izatea.
- 47c) Eraikin berriek mugatuta izango dituzte energia-kontsumoa eta -eskaria.
- 47d) Eraikin berriek ez dute inongo exijentzia edo eskakizunik energiaren ikuspuntutik.

48 ETXEKO UR BERORAKO (EUB, ACS GAZTELANIAZ) EGUZKI-ENERGIAREN GUTXIENKOA ERAIKIN BERRIETAN:

- 48a) Urteko eguzki-erradiazio orokorraren eguneko batez bestekoa 5 kWh/m²-tik gora dutenen klima-zonetarako baino ez da nahitaezkoa
- 48b) Nahitaezkoa da EUB eskaria eguneko 50 l-tik gorakoa denean.
- 48c) Proiektugilearen esku geratzen da.
- 48d) % 60 da, klima-zona edozein dela ere.

49 BIZITEGI-ERABILERARIK EZ DUEN ERAIKIN BERRI BATEK KALIFIKAZIO ENERGETIKO HAU IZAN BEHAR DU ERAIKINAREN ENERGIA PRIMARIOAREN KONTSUMO-ADIERAZLERAKO:

- 49a) A motakoa.
- 49b) B motakoa edo goragokoa.
- 49c) C motakoa edo goragokoa.
- 49d) Edozein baliokoa, eraginkortasun edo efizientzia energetikoaren ziurtagiria edukitzea baino ez zaielako exijitzen.

50 LEHENDIKAKO ERAIKINEK MUGATUTA IZANGO DUTE ENERGIA-ESKARIA BALDIN ETA HAIETAN ESKU HARTU ETA:

- 50a) Erabilera aldatzen bazaie.
- 50b) Eraikitako azalera edo bolumena handitzen bazaie.
- 50c) Eraberritu edo erreformatzen badira (alde batera utzita eraikinak mantentzeko lanak edo obrak).
- 50d) Aurreko hiru kasuetan.

51 PROZEDURA FOTOVOLTAIKOEN BIDEZKO ENERGIA ELEKTRIKOAREN GUTXIENKOA:

- 51a) Nahitaezkoa da eraikin berri guztietarako.
- 51b) Nahitaezkoa da azalera eraikia 5000 m² baino handiagoa duten eraikin berri guztietarako.
- 51c) Nahitaezkoa da azalera eraikia 5000 m² baino handiagoa duten eta energia elektrikoaren kontsumoa 10000 kWh/urte baino gehiago duten eraikin berri guztietarako.
- 51d) Aurreko aukeretatik batek ere ez du balio.

52 ETXEKO UR BERORAKO (EUB, EDO ACS GAZTELANIAZ) EGUZKI-ENERGIAREN GUTXIENEOA GUZTIZ EDO PARTEZ ORDEZKATU AHALKO DA BESTE ENERGIA BERRIZTAGARRI BATZUEN INSTALAZIO ALTERNATIBO BATEKIN EDO KOGENERAZIO-PROZESUEKIN:

- 52a) Beti.
- 52b) Kasu hauetan bakarrik: eraikinaren kokalekuak, harenak ez diren hesiak direla eta, nahikoa eguzki jasotzen ez duenean.
- 52c) Kasu hauetan bakarrik: karbono-dioxidoaren isuriek eta energia primario berriztaezinaren kontsumoak, EUB eskaria (edota EUB eskaria eta berokuntza-eskaria, guztira, beharrezkotzat joz gero) guztiz asetzeko instalazio alternatiboaren eta haren sistema osagarri guztien ondoriozkoak, maila berekoak edo apalagokoak direnean hauek baino: dagokion eguzki-instalazio termikoaren eta eskari konparaturako laguntzarako osagarritzat jo beharko den sistema osagarriaren bitartez lortuko lirakekeenak.
- 52d) Inoiz ez.

53 ONDORENGO ERAIKINETATIK ZEINTZUK EDUKI BEHAR DUTE ERAGINKORTASUN EDO EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA?

- 53a) Eraiki berri guztiek, eta lehendik dauden eraikinek edo horien zatiek baldin eta saldu egiten badira edo errentari berri bati alokatzen bazaizkio, betiere indarreko ziurtagiririk ez badute.
- 53b) Kode Teknikoa onartuz geroztik eraikitako guztiek.
- 53c) Eraiki berri guztiek, eta lehendik dauden eraikinek edo horien zatiek baldin eta berokuntza-sistema badute.
- 53d) Batek ere ez, eraginkortasun edo efizientzia energetikoaren ziurtagiria borondatezkoa delako.

54 ERAGINKORTASUN EDO EFIZIENTZIA ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIAK BIDE EMATEN DU ERAIKINARI EXIJITU DAKIZKIOKEEN ENERGIA-BETEKIZUN GUZTIAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO:

- 54a) Egia da, proiektuaren fasean ematen delako eta eraikina amaituta dagoenean ere ematen delako.
- 54b) Gezurra da. Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (RITE) betetzea baino ez du bermatzen.
- 54c) Gezurra da. Eraikinak aldeztu aurretik bete beharko ditu eraikitzen den unean indarrean dagoen araudiak eraginkortasun edo efizientzia energetikoari buruz ezarritako gutxieneko betekizunak.
- 54d) Gezurra da. Hau baino ez du bermatzen: eraikinaren energia-eskariaren muga betetzea.

55 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN 1. XEDAPEN GEHIGARRIAREN ARABERA, ETXEBIZITZA ERAIKITZEN ARI DIRELA, ASEGURU BATEN BIDEZ ESTALIKO DA SUSTATZAILEEK ETXEBIZITZAREN PREZIOAREN KONTURAKO AURRERAKINAK JASOTZEA, ETA HAUEI APLIKATUKO ZAIE:

- 55a) Babes ofizialeko etxebizitzetarako bakarrik.
- 55b) Etxebizitza-mota guztiei.
- 55c) Erostea aukera ematen duen errentamenduko etxebizitzetarako.
- 55d) Babes publikoko etxebizitzetarako.

- 56 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO 38/1999 LEGEAK EZARRITAKOAREN ARABERA, KONTRAKOA ESPRESUKI HITZARTZEN EZ BADA, OBRAREN ONARPENA EDO HARRERA (RECEPCIÓN DE LA OBRA):**
- 56a) Amaiera-egunaren ondorengo 10 egunen barruan egingo da.
 - 56b) Amaiera-egunaren ondorengo 30 egunen barruan egingo da.
 - 56c) Amaiera-egunaren ondorengo 2 hilabeteen barruan egingo da.
 - 56d) Amaiera-egunaren ondorengo 6 hilabeteen barruan egingo da.
- 57 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO 38/1999 LEGEAREN ARABERA, ERAIKITZAILEAK ERANTZUKIZUNA IZANGO DU, BESTEAK BESTE, OBREN AKABERA-ELEMENTUEI ERAGITEN DIETEN KALTE MATERIALENGATIK, EXEKUZIO-AKATS EDO -HUTSEN ONDORIOZKOAK BADIRA. HAIN ZUZEN ERE, HAU IZANGO DA HORRETARAKO EPEA:**
- 57a) Urtebete
 - 57b) Hiru urte.
 - 57c) Bost urte.
 - 57d) Hamar urte.
- 58 IRISGARRITASUNA SUSTATZEARI BURUZKO 20/1997 LEGEAK DIOenez, LEGE HORRETAN EZARTZEN DIRENAK BETETZEA BERMATU BEHAR DA ONDORENGO LIZENTZIAK ONARTU ETA EMAN BAINO LEHEN:**
- 58a) Erabilera publikoko eraikuntza-proiektuetarako eta urbanizazio-proiektuetarako lizentziak bakarrik.
 - 58b) Eraikuntza-proiektuetarako eta urbanizazio-proiektuetarako lizentziak bakarrik.
 - 58c) Eraikuntza-proiektuetarako, urbanizazio-proiektuetarako eta xehetasun-azterketetarako lizentziak bakarrik.
 - 58d) Edozein eraikuntza- edo urbanizazio-proiektu edo plangintzako edozein tresna onartu baino lehen.
- 59 IRISGARRITASUNA SUSTATZEARI BURUZKO 20/1997 LEGEAREN ARABERA, APARKALEKUETAN, GORDE EDO ERRESERBATU BEHARREKO PLAZEN KOPURUA HAU IZANGO DA:**
- 59a) Plaza bat 50etik aurrera.
 - 59b) Plaza bat 40 edo frakzio bakoitzeko.
 - 59c) Plaza bat 25 edo frakzio bakoitzeko.
 - 59d) Plaza bat 30etik aurrera.
- 60 IRISGARRITASUNEN ARAU TEKNIKOEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAK EZARRI DUenez, HONELA JARRIKO DIRA HIRI-ALTZARIAK ESPALOIETAN:**
- 60a) Espaloiak 4m zabal baino gehiago direnean, espaloien erdiko ardatzean.
 - 60b) Espaloien kanpoko ertzean bideko seinaleak direnean bakarrik.
 - 60c) Espaloien kanpoko ertzean.
 - 60d) Ahal dela, fatxaden ondoan.

61 IRISGARRITASUNeko ARAU TEKNIKOEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAK EZARRITAKOAREN ARABERA, INDUSTRIA-ERAIKIN EDO -INSTALAZIOETARAKO SARBIDEEK IRISGARRITASUN-BALDINTZAK BETE BEHAR DITUZTE?

- 61a) Ez.
- 61b) Bai.
- 61c) Bai, onarpen-eskubidea erreserbatuta dutenean salbu.
- 61d) Bai, baina ez da nahitaezkoa gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonentzako irisgarritasuna izango duen komun bat izatea.

62 IRISGARRITASUNeko ARAU TEKNIKOEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAK EZARRI DUENEZ, GURPIL-AULKIA ERABILTZEN DUTEN EDO MUGIKORTASUN URRIA DUTEN PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZETAKO KORRIDORE EDO PASILLOEN GUTXIENeko ZABALERA HAU IZANGO DA:

- 62a) 1,00m.
- 62b) 1,10m.
- 62c) 1,20m.
- 62d) 1,50m.

63 IRISGARRITASUNeko ARAU TEKNIKOEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAK EZARRI DUENEZ, HAUEK IZANGO DIRA IGOGAILUEN KABINAREN BARRUKO DIMENTSIOAK, OZTOPORIK GABEAK ETA ATEAK ZABALTZEKO BEHARREZKOA DEN ESPAZIOA SALBUETSITA:

- 63a) 1,20m x 1,00m.
- 63b) 1,20m x 0,90m.
- 63c) 1,40m x 1,10m.
- 63d) 1,40m x 1,20m.

64 IRISGARRITASUNeko ARAU TEKNIKOEI BURUZKO 68/2000 DEKRETUAK OINEZKOENTZAKO IBILBIDE PUBLIKOEI BURUZ DIOENEZ, 2,00 M-KOA IZANGO DA OZTOPORIK GABEKO GUTXIENeko IGAROTZE-ZABALERA. BALDINTZA HORI HAUETAN APLIKATUKO DA:

- 64a) Urbanizazio guztietan.
- 64b) Urbanizazio guztietan, hektarea bakoitzeko 12 etxebizitzako dentsitatea edo txikiagoa duten urbanizazioetan izan ezik.
- 64c) Urbanizazio guztietan, % 16 edo gehiagoko malda duten lursailetan garatzen diren urbanizazioetan izan ezik.
- 64d) Urbanizazio guztietan, salbu eta, bideen zabalera 5,00 metro baino gutxiagokoa izaki, galtzadaren albo banatan espaloirik jartzerik ez dagoenetan.

65 IRISGARRITASUNA SUSTATZEARI BURUZKO 20/1997 LEGEAREN ARABERA, ETXEBIZITZA LIBREEN SUSTAPENETAN, ZENBAT ETXEBIZITZATIK AUERRERA HASIKO DIRA EGITEN MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ERRESERBAK?

- 65a) 25 etxebizitzatik aurrera.
- 65b) 50 etxebizitzatik aurrera.
- 65c) 75 etxebizitzatik aurrera.
- 65d) 100 etxebizitzatik aurrera.

66 HAUEK HARTZEN DITUZTE KONTUAN BOE-EN DISEINURAKO ORDENANTZEK ETXEBIZITZEN AZALERA DELA ETA EZARRITAKO ZEHAZTAPENEK :

- 66a) Etxebizitzen azalera erabilgarriak.
- 66b) Etxebizitzen azalera eraikiak.
- 66c) Etxebizitzen azalera eraikiaren % 80.
- 66d) Etxebizitzen azalera eraikiak gehi elementu komunen zati proportzionala.

67 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN AZALERA ERABILGARRIAREN ZENBAKETAREN ONDORIOETARAKO, FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZETAN, ELEMENTU ERAIKIAK EZ DIREN ERABILERA PRIBATUKO KANPO-AZALERA EDO EREMUARI DAGOKIONEZ:

- 67a) Azalera horren % 20 zenbatuko da baldin eta etxebizitzaren erabilera eskusibokoa bada.
- 67b) Azalera horren % 10 zenbatuko da, barruko azalera erabilgarriaren % 5eko mugaraino.
- 67c) Azalera horren % 5 zenbatuko da, barruko azalera erabilgarriaren % 10eko mugaraino.
- 67d) Ez da zenbatzen.

68 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN, HAU IZANGO DA ESEKITOKI ZAPALGARRI BATEN LURZORUAREN GUTXIENEN AZALERA:

- 68a) 2,00m².
- 68b) 2,50m².
- 68c) 1,50m².
- 68d) 3,00m².

69 BABES OFIZIALEKO ERAIKINETAKO GARAJEETAN, HAU IZANGO DA GUTXIENEN GARAJE-PARTZELA LIBREA:

- 69a) 2,30m x 4,80m.
- 69b) 2,20m x 4,60m.
- 69c) 2,40m x 4,80m.
- 69d) 2,30m x 5m.

70 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN, HAU IZANGO DA ZORUAREN ETA SABAIAREN ARTEKO GUTXIENEN GARAIERA EDO ALTUERA, SARRERA, PASILLO EDO KORRIDORE ETA BAINUGELETAN SALBU:

- 70a) 2,40m.
- 70b) 3,00m.
- 70c) 2,50m.
- 70d) 2,30m.

71 BI LOGELAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEK HAU IZANGO DUTE:

- 71a) Komun bat.
- 71b) Komun bat eta bainugela bat.
- 71c) Bainugela bat.
- 71d) Bi bainugela.

72 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN, BAINUGELA OSOAN DUTXA-PLATERIK JARRIZ GERO, HAUEK IZANGO DITU GUTXIENEN NEURRIAK:

- 72a) 0,70 x 0,70m.
- 72b) 0,80 x 0,80m.
- 72c) 0,65 x 0,65m.
- 72d) 0,70 x 1,00m.

73 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN (BOE) DISEINURAKO ORDENANTZEN ARABERA, 90^º-KO BATERIAKO APARKALEKU-PLAZETAN SARTZEKO ERRODADURA-PASILLOEK NEURRI HAU EDUKIKO DUTE:

- 73a) 3,50m.
- 73b) 5m.
- 73c) 4m.
- 73d) 4,50m.

74 ONDARE URBANIZATU ETA ERAIKIA BIRGAITZEKO JARDUKETA BABESTUEI BURUZKO 317/2002 DEKRETUAREN IV. ERANSKINAREN ARABERA –ETXEBIZITZEN GUTXIENEN BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK–, BIZITZEKO EGOKIAK DIREN ESPAZIOETAN, ZUZENEAN KALERA JOTZEN DUTEN KRISTALEZKO IREKIUNEAK IZANGO DIRA:

- 74a) Kasu guztietan.
- 74b) Guztietan, komun, sukalde eta despentsetan izan ezik.
- 74c) Guztietan, komunetan izan ezik.
- 74d) Guztietan, komun eta despentsetan izan ezik.

75 ONDARE URBANIZATU ETA ERAIKIA BIRGAITZEKO JARDUKETA BABESTUEI BURUZKO 317/2002 DEKRETUAREN IV. ERANSKINAREN ARABERA –ETXEBIZITZEN GUTXIENEN BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK–, ETXEBIZITZAREN GUTXIENEN AZALERA ERABILGARRIA EZ DA HAU BAINO TXIKIAGO IZANGO:

- 75a) 35m².
- 75b) 37m².
- 75c) 40m².
- 75d) 45m².

76 ADMINISTRAZIO OROKORRAK BIRGAITZE EDO ERREHABILITAZIO INTEGRATUKO AREATAN EGIN BEHARREKO BIRGAITZE EDO ERREHABILITAZIO JARDUKETAK ONDORENGO PLANEAMENDU-FIGURAREN BIDEZ ZEHAZTUKO DIRA:

- 76a) Plan partzialak.
- 76b) Xehetasun-azterketak.
- 76c) Barne-eraberritzeko planak
- 76d) Birgaitze- edo errehabilitazio-plan bereziak.

77 BOE-EN DISEINURAKO ORDENANTZEN ARABERA, TRASTELEKU GUZTIEK IZANGO DUTE IDENTIFIKAZIO-ERROTULU BAT:

- 77a) Lotzen zaion etxebizitzaren izenarekin bat etorriz.
- 77b) Atariaren zenbakiarekin bat etorriz.
- 77c) Proiektuaren dokumentazioarekin bat etorriz.
- 77d) Bere kokapenarekin bat etorriz.

78 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN, HAU IZANGO DA BAINUONTZIAREN GUTXIENeko NEURRIA:

- 78a) 1,70m.
- 78b) 1,50m.
- 78c) 1,40m.
- 78d) 1,60m.

79 ONDARE URBANIZATU ETA ERAIKIA BIRGAITZEKO JARDUKETA BABESTUEI BURUZKO 317/2002 DEKRETUAREN IV. ERANSKINAREN ARABERA –ETXEBIZITZEN GUTXIENeko BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK—, HAUEK IZAN BEHAR DITU KOMUNAK GUTXIENEZ:

- 79a) Komun-ontzia eta konketa.
- 79b) Komun-ontzia, konketa eta dutxa.
- 79c) Komun-ontzia, konketa eta bainuontzia.
- 79d) Komun-ontzia, konketa, bainuontzia eta bideta.

80 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEARI BURUZKO 30/1992 LEGEAREN ARABERA, KONTRAKOA ESPRESUKI XEDATZEN EZ BADA, HOLAKOAK IZANGO DIRA TXOSTENAK PROZEDURAREN INSTRUKZIOAN:

- 80a) Borondatezkoak eta ez-lotesleak.
- 80b) Aginduzkoak eta ez-lotesleak.
- 80c) Borondatezkoak eta lotesleak.
- 80d) Nahitaezkoak eta erabakigarriak prozeduraren ebazpena emateko.

ORDEZKO GALDERAK:

81 P BALDIN BADA LANPARAREN ETA EKIPO LAGUNGARRIAREN POTENTZIA, S AZALERA ARGIZTATUA ETA E_m LORTUTAKO BATEZ BESTEKO ILUMINANTZIA HORIZONTAL MANTENDUA, HONELA DEFINITZEN DA INSTALAZIOAREN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN BALIOA (VEEI):

81a)
$$VEEI = \frac{P \cdot S}{E_m} \cdot 100$$

81b)
$$VEEI = \frac{P}{S \cdot E_m} \cdot 100$$

81c)
$$VEEI = \frac{P \cdot E_m}{S} \cdot 100$$

81d)
$$VEEI = P \cdot S \cdot E_m \cdot 100$$

82 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO INGURUMENA BABESTEARI BURUZKO 3/1998 LEGEAK JARDUERA-LIZENTZIAREN MENDEKOTZAT JOTAKO JARDUERA SAILKATUEN ARTEAN DAUDE:

- 82a) Udal planeamendu orokorraren hirigintza-arauek definitutakoak.
- 82b) Abeltzaintza edo abelazkuntzako ustiaketak.
- 82c) Basogintzako jarduerak.
- 82d) Nekazaritzako jarduerak.

83 HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREK HAUEK FINKATUKO DITUZTE, NAHI IZANEZ GERO:

- 83a) Hiri-lurzoruaren egiturazko antolamendua eta lurzoru urbanizaezinaren antolamendu xehatua.
- 83b) Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren egiturazko antolamendua.
- 83c) Lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta hiri-lurzoru finkatugabearen antolamendu xehatua.
- 83d) Lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoru finkatuaren antolamendu xehatua.

84 LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO 2/2006 LEGEAREN ARABERA, BESTEAK BESTE IRIZPIDE HAUEK HARTUKO DIRA KONTUAN LURSAIL BAT LURZORU URBANIZAEZIN GISA SAILKATZEKO:

- 84a) Sailkapen hori justifikatuta egotea lurzoru urbanizagarriari edo hiri-lurzoruari atxikita ez egoteagatik.
- 84b) Eraikuntzak gutxienez zati batean finkatutako antolamendu edo ordenaziorik ez izatea.
- 84c) Hirigintza-garapena ahalbidetzeko gutxieneko zerbitzurik ez izatea.
- 84d) Lursailak ez izatea egokiak hiri-garapenerako.

- 85 BIZITEGI-ERABILERA PUBLIKOAN, SOLAIRUEK EDO LOKALEK SOLAIRUKO IRTEERA EDO LOKALEKO IRTEERA BAKARRA IZANGO DUTE, HURRENEZ HURREN, BALDIN ETA, GAINERAKO BALDINTZAK BETETZEAZ GAIN, BEHERANZKO EBAKUAZIO-GARIAERA, GEHIENEZ, ERAIKINEKO IRTEERAREN GAINEKO BIGARREN SOLAIRUA BADA, ETA MUGA OROKORRA APLIKATU AHAL IZANGO DA —HAU DA, 28 M-KO EBAKUAZIO-GARIAERA— ESTABLEZIMENDUAK DETEKZIO- ETA ALARMA-SISTEMA BAT BADU, ETA OSTATU-PLAZAK EZ BADIRA:**
- 85a) 20 baino gehiago.
85b) 22 baino gehiago.
85c) 25 baino gehiago.
85d) 30 baino gehiago.
- 86 EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUAREN ARABERA (ZARATAREN KONTRAKO BABESA), BATETIK, ESPARRU BABESTU BATEN, ETA, BESTETIK, BERTIKALKI EDO HORIZONTALKI HAREN MUGAKIDE IZAN ETA HAREN ERABILERA-UNITATEKOA EZ DEN ETA INSTALAZIO- EDO JARDUERA-ESPARRU EZ DEN ERAIKINEKO BESTE EDOZEIN BIZITZEKO ESPARRU EDO ESPARRU BABESTU BATEN ARTEKO AIREKO ZARATAREKIKO ISOLAMENDU AKUSTIKOA, DNT,A, EZ DA TXIKIAGOA IZANGO:**
- 86a) 55 dBA baino, aterik edo leihorik partekatzen ez duten bitartean, betiere. Partekatzen dituztenean, haien R_A ez da txikiagoa izango 20 dBA baino, eta itxituraren R_A ez da txikiagoa izango 50 dBA baino.
86b) 55 dBA baino, aterik edo leihorik partekatzen ez duten bitartean, betiere. Partekatzen dituztenean, haien R_A ez da txikiagoa izango 30 dBA baino, eta itxituraren R_A ez da txikiagoa izango 55 dBA baino.
86c) 50 dBA baino, aterik edo leihorik partekatzen ez duten bitartean, betiere. Partekatzen dituztenean, haien R_A ez da txikiagoa izango 30 dBA baino, eta itxituraren R_A ez da txikiagoa izango 50 dBA baino.
86d) 50 dBA baino, aterik edo leihorik partekatzen ez duten bitartean, betiere. Partekatzen dituztenean, haien R_A ez da txikiagoa izango 20 dBA baino, eta itxituraren R_A ez da txikiagoa izango 50 dBA baino.
- 87 EKT-REN HZ (HR) OINARRIZKO DOKUMENTUAK (ZARATAREN KONTRAKO BABESA) EXIJITZEN DITUEN ERREBERBERAZIO-DENBORAREN MUGA-BALIOAK HAUEI APLIKATZEN ZAIZKIE:**
- 87a) Ikasgela, hitzaldi-areto, eta jantokiei; era berean, esparru babestuen mugakide diren eta haiekin atea partekatzen dituzten bizitegi-erabilera publiko edo pribatuko eraikinen, eta, orobat, irakaskuntza- eta ospitale-erabilerako eraikinen eremu komunei.
87b) Ikasgela, hitzaldi-areto, eta jantokiei, baldin eta 350 m³ baino bolumen txikiagoa badute; era berean, esparru babestuen mugakide diren eta haiekin atea partekatzen dituzten bizitegi-erabilera publikoko eraikinen, eta, orobat, irakaskuntza- eta ospitale-erabilerako eraikinen eremu komunei.
87c) Ikasgela, hitzaldi-areto, eta jantokiei, baldin eta 350 m³ baino bolumen txikiagoa badute; era berean, esparru babestuen mugakide diren eta haiekin atea partekatzen dituzten bizitegi-erabilera publiko edo pribatuko eraikinen, eta, orobat, irakaskuntza- eta ospitale-erabilerako eraikinen eremu komunei.
87d) Ikasgela, hitzaldi-areto, jantoki, auditorio, musika-areto, antzoki eta zinemei, baldin eta 350 m³ baino bolumen txikiagoa badute; era berean, esparru babestuen mugakide diren eta haiekin atea partekatzen dituzten bizitegi-erabilera publikoko eraikinen, eta, orobat, irakaskuntza- eta ospitale-erabilerako eraikinen eremu komunei.

88 ERAIKUNTZAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, PROIEKTUA PROIEKTUGILE BATEKIN BAINO GEHIAGOREKIN KONTRATATUZ GERO, HONELAKOA IZANGO DA ERANTZUKIZUNA:

- 88a) Proiektugile bakoitzak berea izango du
- 88b) Solidarioa.
- 88c) Kopuru ekonomikorik handiena hartu duenak bakarrik izango du.
- 88d) Kostu ekonomikoaren arabera.

89 BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETAN, NOLAKO ESTALDURA IZANGO DUTE SUKALDE ETA BAINUGELEK ZORU ETA HORMETAN?

- 89a) Alikatatua.
- 89b) Pintatua.
- 89c) Iragazgaitza.
- 89d) Egurrezkoa edo zurezkoa.

90 30/1992 LEGEAREN ARABERA, ESPEDIENTEA ANTOLATZEKO EGINTZAK PRINTZPIO HONEN MENDE EGONGO DIRA:

- 90a) Efikazia edo eraginkortasuna.
- 90b) Efizientzia.
- 90c) Zorroztasuna.
- 90d) Bizkortasuna edo azkartasuna.

***Bolsa de Trabajo
Cuerpo Superior Facultativo***

Opción: Arquitectura

1^{er} ejercicio, parte teórica

Modelo A

28/02/2015

GLOSARIO

ACRÓNIMO	SIGNIFICADO
PTS	Plan Territorial Sectorial
PTP	Plan Territorial Parcial
DOT	Directrices de Ordenación Territorial
CTE	Código Técnico de la Edificación
DB	Documento Básico
DB-SI	Documento Básico-Seguridad en caso de Incendio
DB-HR	Documento Básico-Protección frente al ruido
DB-HE	Documento Básico-Ahorro de Energía
DB-SUA	Documento Básico-Seguridad de Utilización y Accesibilidad
ACS	Agua Caliente Sanitaria
RITE	Reglamento de Instalaciones Técnicas en los Edificios

- 1 LOS CRITERIOS PARA CALCULAR LA CAPACIDAD MÁXIMA RESIDENCIAL QUE PUEDE CONTEMPLAR UN PLANEAMIENTO MUNICIPAL SON LOS ESTABLECIDOS:**
 - 1a) En el Plan Territorial Parcial del Área en el que se integra el municipio, o en su defecto, en las Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV.
